

8 Armairuan zer ote?

- Topatu ate bakoitza irekitzeko behar duzun giltza.

Hemen dagoena errenkada honetan dauden beste hiruren baturaren laurdena da. ☐	Kutxa honetakoa bere eskuinean dauden zenbakien arteko diferentzia da. ☐	Kutxa honetan bere eskuinean dagoenaren hiru laurdenak daude. ☐	Kutxa honetan bere azpian dauden bien batura dago. ☐
Hemen dagoena bere gainean dagoenaren % 10 da. ☐	Errenkada honetan dauden lau zenbakien batura 100 da. ☐	Hemengo zenbakiak goikoa behekoa baino zenbat aldiz handiago den esaten du. ☐	Kutxa honetan beheko zenbakiaren % 60 ezkutatzen da. ☐
Eskuinean dagoena x 9 egiten baduzu lortuko duzu hemengoa. ☐	☐ 5 5	Kutxa honetan bere ezkerrean dagoenaren laukoitza dago. ☐	Ezkerrean dauden bi zenbakien arteko biderdura. ☐
Goikoaren hiru bostenak daude hemen. ☐	Hemengoa gainekoa baino 7 aldiz handiago da. ☐	Hemen dagoena eskuinekoari 100 izateko falta zaiona da. ☐	Kutxa honetan dagoena gainean dagoenaren % 75 da. ☐
Hemengoa bere buruarekin biderkatuta 81 zenbakia da. ☐	Hemen dagoena gainean dagoenaren bi bosten da. ☐	Hemen dagoena gainekoarekin batuz gero, eskuinekoa lortzen da. ☐	Kutxan dagoena zutabe honen zenbaki guztien batura da, bere burua izan ezik, noski. ☐

